

...eta Kitto!

EIBARKO UDALA
EUSKARA BATZORDEA

إلى من لا يحلم - كيتو

Noiz arte aparte?

Harrigarria badirudi ere, Eibarren, eta zehazki Ipurua auzoan, mezkita bat dago. Hemen zenbait marrokiar batzen dira asteburu guztietan bakoitzaren arazoei buruz hitzegiteko, eta batez ere heuren kultura mantendu nahian.

Herri mailan 17-18 familia marrokiar bizi dira, gehienak orain dela bi hamarkada hemen daudelarik. Arazo ekonomikoak zirela eta, familia hauek heuren jatorrizko herria utzi, eta eskulan falta zegoen Euskal Herrira etorri ziren. Orain, hogeitau urte geroago, hemen jarraitzen dute.

Heuren kultura eta ohiturak mantendu nahian, batzuk Ipuruako lokal bat alokatu ondoren, bertan biltzen hasi ziren orain dela bi urte. Bertan dauden bi geletariko bat eskusiboki otoitz egiteko lekua da; eta bestea, sukaldetxo batez horniturik, elkarrizketarako prestatuta dago. Lokal hau beren poltsikoetatik ordaindu behar izaten dute, Udaletxeak ezin duela ezer egin esan bait die.

Dena den, gizon hauen kezka nagusia heuren semeak dira, zeren nahiz eta etxean arabez hitzegin, eta ohiturak semeei ahal den neurrian transmititzen zaizkien, heuren kultura galtzeari beldur diote.

Arazo honi irtenbide bat aurkitzearren, Barcelonan dagoen Marruekoeko kontsulari gazteentzako maisu bat, gutunen bidez, eskatu diote maiz. Azkenengo bidaiari, joandako Irailera-ko maisua helduko zitzaie segurtatu zieten, baina oraindik hau ez da ailegatu. Beraz, hau

da familia hauen ardura nagusia.

Bestalde, hemengo jendearekin mantentzen dituzten erlazioak onak dira, eta ez dira marginatuak sentitzen. Nohizbehinka Marruekoera joaten dira, han dituzten senitartekoak bizitzera. Baina urtean zehar hemen daudenez, ez dute Marruekoeko egoerari buruzko berririk, heuren familiekin komunikatzen direnean gauza arruntei buruz hitzegtzen bait dute (eguraldia, familiaren kontuak...)

Honetaz gain, gaur eguneko Euskal Herriko egoerari buruz ez daukate kriteriorik; nahiago dute beren buruak euskal arazoetatik kanpo mantentzea («no somos quién para opinar» uste bait dute) Beraz, nabari daiteke xabuzko burbuxa batetan bezala bizi direla, heuren kultura, ohitura, eta erlijioz inguratutik.

Lehengora bueltatuz, argi ikusi daiteke kultura hau galtzeko arriskua. Agian marrokiar hauek beren semei kultura marrokiarra transmititzeko gai izango dira; agian burbuxa horren ateak itxita jarraituko du. Baina, logikoa da pentsatzen denborarekin heuren seme-alabak gizarte honetan integratuko direla. Eta heuren aitonomonon kultura zenaren oroi-pena besterik ez zaie geldituko.

Norentzat ari gara lanean?

Ezer esan aurretik ikus ditzagun ondorengo kuadroak eskaintzen dizkigun kopuruak:

1981	GIPUZKOA	ZARAUTZ	PASAIA	EIBAR
Otik 14 urterarte	25,47	30,01	26,2	19,05
15etik 64 urterarte	65,12	62,71	65,2	70,49
65etik aurrera	9,41	7,28	8,6	10,64
1986	GIPUZKOA	ZARAUTZ	PASAIA	EIBAR
Otik 14 urterarte	21,76	24,19	20,1	18,73
15etik 64 urterarte	67,85	66,39	69,3	69,46
65etik aurrera	10,55	9,42	10,6	11,80

• OHARRA: Datu hauek Padroitik aterata daude. Biztanlegoa edo bizilagunak adinaren arabera 3 multzotan banatzen dira, gazteak, helduak eta zaharrak. Datuak portzentaietan emanda daude.

Argi ageri denez Eibarko biztanlegoa zahartzen ari da sinistu ezinezko abiaduraz, eta fenomeno hau Euskal Herri osoan ematen bada ere Eibarrek bost urteko abantaila darama zahartze demografikoen prozesu honetan. Gaur eguneko jorkaera mantendu ezkerko datozen balaunaldiak ez dira gai izango ez ekonomikoki ez psikologikoki eratu den gizarteari aurre egiteko.

Gure Herriak esparru edo anbito desberdinetan ari dira lanean. Gizarte Kultura, Politika arloetan. Hizkuntzaren berreskurapena

edo errekupeazioa, autonomiaren garapena, Nazio Identitatea, krisi ekonimikoa, desafio teknologikoak, langabezia, gaztedia, indarkeria,... eta beste hainbeste borroketan, gure etorkisuna hobetu nahian, buru belarriz lanean gabilta.

Baina garbi utzi behar dena hau da: Borroka guzti hauek, batzuk lehenago eta beste batzuk beranduago, galdu egingo ditugula, demografikoki gure Herria hil zorian ustean badugu.

Azkenik, gure ahalegin guztiak alferrikakoak izango dira ez dugulako izango norentzat lan egin.

Hauxe bai dela jo ta ke lanean aritzea desagertzeaz dagoen herribategatik. Badakigu gogorra eta behar bada ezezaguna egingo zaiuzela ondorio hau, baina errealitateak ematen dituen biztanlegoaren portzentaiak ukatu ezinezkoak dira. Ondorioz egoera larri hau geldiarazi nahi badugu jendearengan konzientzia berri bat sortzea beharrezkoa zaigu.

Ima BERASALUZE

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen, zein kaletan, argazkian agertzen den irudi hau? Beno, hori badakizu eta IKUSONIC-ek emandako euskarazko disko bat irabazi nahi baduzu lehenbaitlehen kartatxo batean zeure izena, helbidea, eta telefonoa emanez esaiguzu zehazki non dagoen argazkiko irudia, honako helbide honetara idatziz, Otsailaren 15a baino lehen:



EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«... eta Kitto!» SARIKETA

Aurreko sariketan Esteban HERNANDO CHICOTE, 42 urtetakoa, A.E.K.n euskara ikasten ari dena, gertatu da irabazle.

Partehartzea, lehenengoz izateko, nahiko polita izan da 7 eta 51 urte arteko 37 lagunek asmatu dute eta batek kale egin du.

Zorionak Esteban ea denok animatzen zareten, IKUSONIC prest dagoelako diskoak banatzeko.

IRAGARKIAK DOHAN

Hona hemen IRAGARKI EDO ANUNTZIO EZ LUKRATIBOENTZAKO TXOKOA. Etxean behar duzun edo sobera daukazu tresnaren bat erosi edo saldu nahi baduzu, liburu, diskoak... lortu edo trukatzeko, egunero Eibarrera etortzeko edo bertatik joateko auto-beharra edo eskaintzak egiteko, lagun eta adiskideei zitak jartzeko, oporretarako lagunak aurkitzeko... guzti horretarako eta gehiagotarako HEMEN DAUKAZU LEKUA, HAU DA ZEURE AUKERA: IRAGARKIAK DOHAN.

B

Gustora eskuratuko nituzke Walkman eta kasko batzuk prezio onean. 717934 Idoia.

A

Bihotzeko Ana Mari, badakizu ez naitzela ahazten. Gogoratzen duzu iazko Eguenzuri eguna? Fetxa hau laister datorrela eta zurekin, eta zuk nirekin jakina, goxo-goxo eta maite-maite pasatzea gustatuko litzaidake. Eguenzuri egunean arratsaldeko 8-retan Untzagan zuk dakizun lekuan egongo naiz pasiatzen.

F

Aupa Joseba, soldadutxo sufritu hori!! Badakit La Manchako meseta horretan ez duzula berotasun handirik izango. Asko gogoratzen naiz zurekin. Besarkada bat. PS: Hemen doakizu: «... eta Kitto»-ren bigarren alea. Zure gustokoa izango delakoan, laister arte. M.U.A.

G

Bilbora egunero joaten garen ikasle pare bat gara. Trenak eta autobusak garestiak direnez eta gure poltsikoak zula-tuak daudenez, komeni zaigu egunero Eibartik Bilbora, joango den bikote bat aurkitzea. Kotxea guk ipintzen dugu. Edozein informaziorako deitu telefono honetara: 711416.

E

Nire gela xarmangarrian badut txoko huts bat eta bertan barru giroko landare bat edukitzea gustatuko litzaidake. Horrelakorik sobera baduzu eskertuko nituzke telefono honetara deitzea: 712502

D

Erredakzioan mozarrotzeko disfraz batzuk behar ditugu lehen bait lehen. 700778 Idoia.

MARMARREAN ETA AUTUAN

Erraldoiak, buruhandiak, maskarak, berbena bi, bi berbena, kalejira, zankudoak; pailaso bat, bi, hiru, lau, EHUN!!! tximinoa, printzesana... Buuuff!!


Baino hau ez da dena: rockeroentzat rocka, eta ez rockeroentzat musiku bandaren kontzertua, ez kexatu!!!

Eta oraindik gohiago: bat, bi, hiru, lau BOST berbena.

Baita ere koadrila bakoitzak bere saioa aurkeztuko digu, eta jakina «realista» emakumeek heuren espektakulua prestatuta edukiko dute urtero bezala, urtero bezala.

Mozorro, zamorro, txorro, morro... jantzi zaitetz eta ibili harro, karramarro.

KOMIKIA



Jose «Querido»-rekin tertulixan

Jose Etxeberria «Querido» 1912an jaio zan eibartar familia batean. Bai Eibarren eta bai Euskal Herriko leku askotan oso ezaguna da, eta oso maitatu gainera, karakter zabaleko pertsona dalako. Euskal Herria asko maite dabela argi dagoen gauza bat da, bere mendiak, jendea, ... dana. Nahiz eta jendearen artean diferentziak eta gorrotoa egon, bere ustez mendia gauza guzti hauek alde batera lagatzen dira eta bertan egindako lagunak betirako izaten dira.

• 1934an erreboluziñua zala ta kartzelan egon izan bihar izan neban. Handik urten eta gero abiaziñuan be egon nintzan.

• Mendixan ibiltzen jakin eñ bihar da eta gertauta ibili bihar da. Brujulia be jakin eñ bihar da erabiltzen.


• «Querido» goitizena birraitonen denporetatik dator.

• Mendixan lagun asko eitxen dira, euskaldunok harrera ona daukagu Espainiako toki guztietan umoretsuak garalako.

«Guk gaztiak giñanian ez geka- gun orain daozen polideportibuak, orduan gure gaztetako jolaslekuak zera ziran: errekek, herriko ormak eta mendia. Herriko paretetan pelotan egiten genduan, errekan peskan eta mendian gaztaña lapurretan. 14-15 urtekin, eta ilusiño askokin Galdaramiño ta Urko ta igotzen genduazen. Gero 17-18 urte inguruan hasi giñan Klub Deportibuan konkursuak egiten nagusiekin, eta gure lenengo mendiak izan ziran Oiz, Aitzgorri, ... 1934an 2.000m-tako mendiak igotzen hasi giñan, lenengua San Lorenzo izan zan, Errioxan. Baiña urte honetan, reboluziñuaren ondorioz kartzelara sartu ninduten».

Gartzelan ez zeban hain txarto hain txarto igero. Nahiz eta bertan beste hamasei eibartarrekin urtebe- te pasa, monjak ondo emon zetzen jaten, eta gainera herritik ere diru pixka bat bidaltzen. Handik beren eta gero ezkondu egin zan (berak brometan esaten daben moduan beste kartzela batera sartu zan). Gero gerratea etorri zanean Amua- tegi batalloian teniente moduan jar- dun zeban. Abiaziñuan ibili eta ge- ro, eta Frantzian denboraldi bat egon ondoren, berriz Eibarrera bueltatu zan, bere Eibar maitera, eta zelan ez... mendira.

«Lenengo mendia gerria amaitxu ta gero Udalaiz izan zan. Bizikletan Kanpazar igo neban eta gero oinez Udalaiz. Klub Deportibua hasi zanian eskursiñuak kamioietan egiten genduazen, autobusik ez zeuan ta. Hala ta guztiz mendian ibiltzeko nere laguntasuna bizikletia izan zan: Aitzgorri, Ernixora, Izarraitza, ... Gero gure lenengo eskursiñua hemendik kanpo «Picos de Europa»-ra izan zan. Juanito San Martin geure gia zalarik, gu baño onaua zan ta eskaladan».



Hala ere, nahiz eta mendian ibiltzea asko gustatu, atzerriko mendiak ez ditu sekula bisitatu, alde batetik beti gustatu izan jakolako familiarekin ibiltzea oso urrin joan barik, eta bestaldetik nahiko karua urtetzen zalako. Orain dala gutxi Alpes-etara joateko aukera euki dau, baiña berak esaten dabenez «len dirua zan problema, orain oster- a edadia». Hala ere, Jose «Querido» gizon gogorra dogu, azkenal- di honetan «Belaguatik itsasora» deitutako ibilaldia egin dau; gaine- ra kontatu deskunez kirol mota as- ko praktikatzan dattu egunean ze- har: pisu jasotzea, igeria, antxitxi- keta, ... mendian ibiltzeko aparte.

«Mendian ibiltzen jakin behar da, mendia asko aldatzen da eguraldiakin, eta horrexegaitxik ez da beti bardin ibili behar. Kontuz ibili behar da mendian. Mendia maite izan behar da baiña bere errespetua euki bahar jako; men- diak gu hartzia nahi gaitxu, amak be bai, baiña amak be noizian behin zaplastekua emoten dosku, eta mendiakin bardin gertatzen da. Norberak kontua badaka ba orduan ez dao arriskurik. Mendian prisak alde batera laga behar dira, ez bat- zuk egiten deben moduan ia zein lenago ailllegau. Bestaldetik mendia ez da bakarrak zuzen-zuzen puntara ailllegatzeko, berak dituden ederta- sunak ikusteko ere bai, hau da, mendia ezagutzeko. Akordatzen naiz Indalezio Ojanguren fijau ba- rik igotzen zebala mendiak, baka- rrik egiten zeban mendia igo eta fo- tografiak atara, kontutan hartu ba- rik ze bidetik igo zan, bera atzetik

joaten zan jendeari segika. Men- dian ibiltzeko gertau egin behar da, hobe da erropia eta janaria sobran eukitzea faltatzea baina. Brujulia beti poltsikuan eruatea oso inpor- tantea da ze laiñua edozein momen- tutan etorri leike, baina jakiña, brujulak ez detsu markatzen Do- nostia nun dagoen edo galduta zao- zenian zer egin bihar dozun; bruj- ulia ikasi egin behar da erabiltzen».

«Querido» goitizena, berari hain ondo etorri arren hain jatorra eta maitagarria izanda, ez da berea, bere birraitonarena baño. Emoten dabenez bere birraitonak soldaduz- ka Burgosen egin zeban, hiru urte pasatu zittuan bertan, eta hain er- dera ikasita bueltatu zan Eibarrera. Bertan harategi baten egiten zeban biharra, eta bezero bati zea esatea bururatu jakon: Hola querida, «qué quieres? Emakumea hain harrituta geratu zan, handik aurrera danok «Querido» deittu zetsala.

«Mendian jende asko ezagutzen dozu, asturianoak, gaileguak, ... eta nik mendiari graziak amastade asko dakaraz. Ahal dala danekin ondo portau behar da. Nik oso re- lazioño onak euki dituden jendetiakin, gañera guk, euskaldunok, harrera ona dauka Espainiako toki guztie- tan».

Berakin berbetan egon garan bi- tartean makina bat anekdota konta- tu desku. Hara hamen honako ba- tzuk:

«Gaztetan Arraten foball ekipua entrenau izan neban, liburuetatik ikasten neban zelan entrenau. Du- rangoko entrenadore bat etorri za- nian eta ikusi ninduanian ekipua

IRAKURLEAREN TXOKOA

«PORROT»EKO ITSUEI

Dezepzio eta sorpresa handia hartu nuen Aurora Baskarnek, alkatesak, «... eta Kitto» aldizkari honen 1. zenba- kian egindako elkarrizketan esandakoa kritikatzeko «Egin» egunkarian erdaraz irakurri ondoren jabetu zinetalako edu- kiaz. Ez dagokit niri gaiaren, mamia- ren gainean hitz egitea baina, bai zuen erreferentzia iturria. Tristea da 15.000 ale herria zehar banatu, denok ere euskaraz irakurtzen ohitu gaitezen, eta zuek «... eta Kitto!» kaleratu eta egun batzuetara erdaraz irakurritako aipamen batetan oinarritzen duzue zeuen ezkuti- tza eta, gainera jatorrizko iturria, «... eta Kitto!» aipatu barik. Mesedez eta faborez, izan gaitezen serioagoak, ira- kurri dezagun «... eta Kitto!» eta ohitu- ra sano moduan, bai zuentzat bai «ja- rrai»koentzat, euskaraz egindako de- klarazioak komentatu edo kritikatu na- hi ditugunean euskaraz mesedez, eus- karari euskaraz erantzun.

Fernando MUNIOZGUREN

ZORIONAK

Bazan ordua holako aldizkaritxo bat Eibarren eukitzea. Ideia txalagarria irizten zait bertoko euskera era kon- tuan hartu duzelako. Banaketa nahiko egokia dela uste dut kioskoen bidez eta, bestela, patxaka dagoen lekutan ona da irakurtzeko astia egoten delako.

Bertoko euskera dela eta gauzatxo bat esan nahi dizuet, beharbada zuek konturatuko zineten: batasuna eman behar diozue.

Besterik esatekotan contenido alde- tik politto ikusten dudala eta linea hau agortu arte badagoela jarraitzerik.

Julian AGIRRE

entrenatzen galdetu zetzan han zeuan bati: «Eibartarra al da hori? — bai

Ba al dakizu nun ikasi daben gimnasia egiten?»

Han zeunak ez zekixan ze espli- kau, baina konturatu zan ni gerran piloto rusuekin ibilli nintzala Es- painian, eta erantzun zetzan:

«A! horrek rusuekin ikasi dau».

«1945ean, gerra amaitu ta gero, fronteran zeuden alemanak Espai- niara sartu ziran. Batzuk Eibarrera etorri ziran Ayra-Durex-era biha- rra egitera Goiz baten Ipuruan nen- billen Eibarko gazte batzukin gim- nasia egiten, eta zelan ni gaztetan rubixua nintzan, andra bat bertatik pasatzerazkuan zera esan zetzan se- miari:

«Hara! ikusten dok, horrek ale- manok gimnasia egiten, elta ez zuen moduan edan eta edan!»

Eta semiak: baiña ama, hori Jose «Querido» da ta!

Eta amak orduan: Nun ikasi dau ba kaxkaju horrek gimnasia eitxen?»

